



2019ko otsailaren 28ko Agindua argitzeko oharra.

2019ko otsailaren 28ko Agindua, Lan eta Justizia Sailburuarena, argitzeko eskaera ikusita, honako hau adierazten da:

Atal xedatzailearen LEHENENGO zatian, zenbait sektoretako greba hasteko eta amaitzeko ordutegiari dagokionez, hitzez hitz jartzen ez bada ere, gutxieneko zerbitzuek aurkeztutako deialdiei eragiten dietela esan behar da, hau da:

“Lan-txanda bat baino gehiago dituzten enpresetan, grebaren hasiera-ordua lehenengo lan-txandarena izango da, nahiz eta martxoaren 8a baino lehen izan, eta bukaera-ordua behin azkeneko lan-txanda amaitu eta gero izango da, nahiz eta martxoaren 8an 24:00etatik aurrera luzatu. Idatzizko egunkariak argitaratzen dituzten prentsa-enpresetan (erredakzio eta errotatibetan), martxoaren 7ko 06:00etatik hurrengo goizeko (martxoaren 8ko) 06:00etara izango da greba. Eta kale-garbiketa eta zabor-bilketako zerbitzuko enpresetan, martxoaren 7ko 22:00etatik hurrengo eguneko 22:00etara.”

